# Guía

# Bizkaia

## Arkitektura eta Hiri-garapena
## Arquitectura y Desarrollo Urbano



Electa



*Convento - Casa Cultura*



*Portugaleteko hiribildua XIV. mendearen hasieran sortu zen Ibaizabal ibaiaren bokalean. Bilbe gotikoko kale estuak zituen eta Bilboko itsasadarren babesle izan zen sortze beretik. Portu garrantzitsua izan zen garai hartatik ia XIX. mendea arte.*

*XIX. mendeko azken laurdenean ibaiertza balneario bilakatu zen. Orduan sortu zen mihi baten antzera Santurtzirantz hedatzen den zabalunea, Frantziako hotelen antzeko eraikinez josia. Horrelako bainu-estazio ugari dago Atlantikoko kostaldean, hala nola Brighton, Blackpool, Saint Maló, Arcachon edo Miarritze.*



*Casa Bustamante*



*«Water front» delakoa hiri horietako edozeinetan bezain ikusgarria izan zitekeen, baina industriaren garapen azkarrak eta itsasadarraren aldeen espezializazioak zapuztu egin zuten bokazio elitista hori. Dena dela, Portugaleteko herritarren gogoan bizirik dago oraindik garai xarmangarri haren oroitzapena, eta kaian zutik iraun duten hoteltxo eta etxetzarrak ere iragan horretaz mintzo zaizkigu. Eraikin erromantikoak dira, udaletxearen aurrealdea edo La Canillako geltokia, monumentua eta parkea bezalaxe. «Art nouveau» mugimenduaren garaiko musika-kioskoak eta Santa Maria elizaren azpian dagoen liburutegiko podium dramatikoak Bizkaian aurki daitekeen «sky-line»-rik ikusgarriena osatzen dute. Santa Maria eliza A. Libanoren eraikin brutalista da.*

*Erdi Aroko herrigunea historia luzeko eta kultur ondare oparoko lekua da. Gaur egun, ahalegin biziak egiten ari da bere egiturak egokitzeko eta iraganean baliozko izan zuen guztia berreskuratzeko. TAU taldeak (Alberto Lopez, arkitektoa) idatzitako Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (lehenetarikoa demokraziaren garaian) eta Alde Zaharreko Plan Berezia, utopia positibista handia badute ere, herria berritzeko funtsezko oinarriak dira. Herriaren antzinako partzeak berebiziko protagonismoa dauka bi plan horietan, hainbesteraino, non gestio integraleko udal-bulego berezia baitu.*



*Borde de Ria*

*Ezin amaitu testu hau Portugaleteko beste eraikin interesgarri batzuk aipatu barik. Hona, bada, garrantzitsuenak: Leonardo Rucabado erregionalismoaren maisu kantabriarraren etxea (Casa Bustamante), 1910ekoa, Udaletxeko Plaza-Santa Maria kalea kantoian; Txurruka moilako pasealekua, Oruetak 1862-72an egina eta TAU taldeak birgaitua; udaletxea, A. Anduizarena (1884); La Canillako geltoki zaharra, P. Alzolak 1888an egindakoa (antzina, hara iristen zen trena); Libanoren liburutegia; Txurrukaren burdinazko kaia (1881-1887), muturrean, Santurtzi alderantz, eta,*

*azkenik, Nautika Eskola, Zanón-ek eta Laorgak 1968an jasotako eraikin sendo eta interesgarria.*

*Amaitzeko, espezialistei esan behar diegu Portugaleteko hilerrian (Bilboranzko irteeran, autobidetik joanda) dozena erdi panteoi dagoela. Haietako batzuk ikusgarriak edo erabat erromantikoak dira. Hilerriak, gainera, oso zabaldura teorizatzailea dauka. Alberto Lopez arkitektoak egina.*



*Ayuntamiento - Ría*

Portugalete, la vieja villa portuaria del siglo XIV, guardián de la ría desde entonces, con sus empinadas calles de trama gótica, ha sobrevivido prácticamente hasta el XIX dedicada a esa función.

En el último cuarto del XIX, su borde de ría adquiere carácter de ciudad balnearia, surgiendo aquel «ensanche» que a modo de lengua crece hacia Santurce, con construcciones tipo hotel francés, emparentada con núcleos de la costa atlántica como Brighton, Blackpool, Saint Maló, Arcachon o Biarritz.

El «water front» pudo ser tan espectacular como en alguna de estas ciudades; la explosión industrial, la especialización de las márgenes de la ría, arruinó su vocación elitista, aún no olvidada ni entre las gentes de Portugalete, ni en algunos episodios visibles, hotelitos y casonas sobrevivientes en el muelle, románticos como también lo son el frente del propio Ayuntamiento, la estación de la Canilla, el monumento y parque. La referencia singular «art nouveau» del Kiosko de música y el podium dramático de la Biblioteca bajo la iglesia de Santa María, construido en clave brutalista por A. Líbano, completan la visión del «sky-line» más espectacular de las villas vizcaínas.

La rica villa medieval, rica en historia y patrimonio cultural, se debate hoy por adaptar sus estructuras, por recuperar lo válido de su pasado. Unos de los primeros Planes Generales de Ordenación Urbana de la época democrática, y el Plan Especial del Casco Viejo, ambos redactados por el equipo TAU (Alberto López, Arquitecto) y aunque ciertamente cargados de utopía positiva, son la base de una gestión en la que la zona antigua adquiere especial protagonismo, con una oficina municipal propia de gestión integral.

El texto no puede terminar sin citar las obras reseñables, la casa del cántabro Leonardo Rucabado, maestro del regionalismo, Casa Bustamante, esquina Plaza del Ayuntamiento-Calle Santa María, obra de 1910; al paseo Muelle Churruca, obra de Orueta (1862-72) rehabilitado por el equipo TAU, el citado Ayuntamiento, obra de A. Anduiza en 1884, y la Antigua Estación de la Canilla donde originalmente llegaba el tren, obra de P. de Alzola, 1888; la también citada Biblioteca de Líbano, y al extremo hacia Santurce, el muelle de hierro de Churruca, de 1881-1887, y la Escuela de Náutica, potente e interesante obra de Zanón y Laorga de 1968.

Para especialistas, el Cementerio de Portugalete, en la salida hacia Bilbao por la autopista, reúne media docena de panteones, algunos espectaculares o plenamente románticos, amén de una muy teorizante ampliación, obra del Arquitecto Alberto López.



*Parque*





*Escuela Naútica*



*Cementerio*

8.15.01
*ALDE ZAHARRA*
CONJUNTO CASCO VIEJO

215 / 3 / 4 / 5 / 197